

III. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Nik,jaunak/andreak, Nafarroako Gazteriaren Institutuan aritzeko Informazio eta/edo Komunikazio Zientzien arloko (Kazetaritza, Ikus-entzunezko Komunikazioa, Publizitatea...) beka deialdia dela-eta,

erantzukizunez aitortzen dut:

- Deialdiaren 6. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituddala.
- Ez nagoela dirulaguntza publikoen onuradun izatea galarazten didaten egoeretako bakar batean ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13.2 artikuluari jarraikiz.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2. artikuluekin bat,

☐ BAIMENA EMATEN DUT / ☐ EZ DUT BAIMENIK EMATEN (aukeratu bat) Nafarroako Gazteriaren Institutuak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian jaso dezan Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean nagoela egiaztatzeko informazioa.

☐ BAIMENA EMATEN DUT / ☐ EZ DUT BAIMENIK EMATEN (aukeratu bat) Nafarroako Gazteriaren Institutuak Zerga Administrazioko Estatu Agentzian edo Nafarroako Zerga Ogasunean jaso dezan, zein den kasua, zerga betebeharretan egunean nagoela egiaztatzeko informazioa.

Informazio hori jasotzeko baimenik eman ezean, interesdunak behar diren frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

.....(e)n, 2022koaren(e)(a)n.